



ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI
348 - 2026ko UZTAILA



JAIETAN BURU-BELARRI!

Ekintzailletza, Ekonomia Soziala eta Negozioen Erreleboa



Cederna Garalur eta Mimukaitik lau urte daramatzagu Amazabal Institutuarekin elkarlanean, ekintzailletza kultura sustatzeko. 2025-2026 ikasturtean lankidetzak indartu dugu, eta DBH2 eta 1. Batxilergoko ekonomia eta POPP ikasleekin hainbat saio egin ditugu.

Ikasleek tokiko ekintzaileen esperientziak lehen eskutik ezagutzeko aukera izan dute. Iñaki Zabaleta, Leitzako arotza, Jabier Saralegi, Araizko abeltzaina, Itxaro Zabaleta Leitzako nutrizionista eta Sara Crisostomo Igoako ostalaria izan ditugu gurekin, euren ibilbideak eta negozio txikien eguneroko erronkak partekatzen.

Horrez gain, Ekonomia Soziala eta negozioen erreleboa landu ditugu Mimukain egindako saio batean, gure herrietako

negozioen garrantziaz eta etorkizuneko erronkez hausnartzeko. Lankidetzak hainbat jarraitzea dugu helburu, gazteen sormena eta ekintzailletza gaitasunak sustatzeko.



ASEGURU AHOLKULARIAK

Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da

► aseguruak@aseguruak.eus

► 943 65 22 20

► Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa

HOSTAL BETELU

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Erreserbak: 948 51 30 26 - 663 97 67 09

ALIPROX

Lekunberri

janaridenda

hamabostaldi eskaintza bereziak

OTXOTORENA okindegia

ARRIBE

ADIII TLF BERRIA: 680 102 689

Izarberri

Bar-Restaurante

Dastatu gure pintxoak, ogitartekoak, bazkariak, menuak eta hamburgeresak!

Aralar 17, behe | LEKUNBERRI

948 575 783

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.

HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa: 948 50 43 31

Lekunberri

MALLOAK

ARTZAI GAZTAK

Granja Martiarena, GINTZA, Nafarroa

Tel. 649 472 097 + fax. 660 511 097

Malloak.com | info@malloak.com

IDIAZABAL

MAILLOPE

· MAILLOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN: Albasu, Aldatz, Ali, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU: Maillope Kultur Elkartea. L.G.: NA 719/93 Maillopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzirik eta esanetan erantzukizunik. issuu.com/maillopealdizkaria

· ERREDAKZIOA: Ainhoa Beraza, Aitor Irastortza, Arantxa Mikeo, Ane Ubegun, Irati Moreno, Mikel Hernandorena eta Xanti Begiristain.

· ARGAZKIAK: Ainhoa Beraza, Andoni Tolosa, Araxes Ikastetxea, Arantzazu Aldanondo, Beñat Pellejero, Beteluko Udala, Cederna Garalur, Eneko Saralegi, Goiztiarrak, Irati Garciarena, Jabier Irigoien, Jon Arangoa, Juan Antonio Garaikoetxea, Lekunberriko Udala, Mari Jose Martiarena, Mattie Garaikoetxea, Nafarroako Balerdi Loratuen Lehiaketa, Oier Goñi, Plazaola Partzuergo Turistikoa eta Txalapartari Taldea.

· PUBLIZITATEA: Irati Moreno - 660 476 041 info@maillope.eus

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

02 CEDERNA GARALUR

04 KUXKUXEAN Zorion agurrak

07 MAITE DITUT MAITE
"Errazkin Ttuturre zirkularra Belutatik"

8 ELKARRIZKETA
"Energia komunitatea hainbat kidek osatutako elkarte bat da"
Andoni Tolosa (Azkarate)



12 BATZARRE

14 ELKARRIZKETA
"Mendialdeko torturatuei aitortza egin diete, egia eta memoria aldarrikatuz"
Nafarroako Torturatuen Sarea eta Egari Zor Fundazioa.



18 KULTURA

28 PLAZATIK PLAZARA
"Galburu okindegia bizitza oso bat izan da"
Mari Jose Martiarena (Lekunberri) eta Baltasar de Castro (Salamanca-Avilés).



31 AGENDA



Jare Goikoetxea Martirena
Abuztuaren 14ean, 3 urte. Zorionak, polita!
Segi horrela, beti bezain irrifartsu bizitzaz
gozatzen. Egun polita pasa.
Musu erraldi bat etxekoan partez.

Damir Osievskii
Uztailaren 6an, 5 urte.
Gure txapelduna, zorionak!
Zurekin dena politagoa da.
Asko maite zaitugu!

Eneko Etxeberria Arguiñarena
Uztailak 12an, 6 urte.
Zorionak, potxolo!
Egun ederra pasa dezazula
opa dizugu Anek, aitak, amak
eta familia guztiak!

Alaitz Leoz Urbizu
Abuztuaren 16an, 8 urte.
Zorionak, Alaitz!
Egun ederra pasako dugu elkarrekin.
Segi horren alai.
Musu handi bat denon partez.



Xune Estanga Saralegi
Abuztuaren 12an, 5 urte.
Zorionak, polita!
Musu handi-handi bat
etxeko guztien partetik!

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu info@mailope.eus helbide elektronikora,
edo WhatsApp bidez **660 476 041** telefonora hilaren
15a baino lehen.



Amalur Leoz Urbizu
Ekainaren 16an, 6 urte.
Zorionak, polita!
Oso ongi ospatu zure eguna!
Ilargiraino eta buelta maite zaitugu.
Musu goxoak etxekoan partez.

Leire Eleta Egaña
Ekainaren 24an, 12 urte.
Zorionak, Leire! Gure neska!
Oso ongi pasa zure egunean eta
oporretan!
Musu handi bat etxekoan partez



BETELUKO ERREKA-IGERILEKUAK ARAUDI BERRIA IZANGO DU

Pertsonen masifikazioaren ondorioz sortutako arazoak eta horrek dakartzan eragozpenak aztertu ondoren, Beteluko Udalak erabaki du erreka-igerilekuak sarbide bakarra izango duela, langileek kontrolatuta.

Aparkaleku mugatu bat jarriko da, aplikazio baten bidez eta alde zuzenetik ordainduta erreserbatu ahal izango dena:

- 5€ autoa / furgoneta / autokarabana.
- 2€ motozikleta.

Ibai-esparrura sartzeko, aparkalekua ordaindu dela egiaztatuta beharko da. Arau hau ez zaie aplikatuko inguruko bizilagunei, ibarreko ostatuetan ostatu hartzen duten bisitariei eta bizikletaz edo garraio publikoan doazen pertsonen (bidaia-eragileentzat txartela aurkeztu beharko da).

Amaitzeko, gogorarazi nahi dugu debekatuta egongo dela bainu-eremuaren inguruan aparkatzea (bakteriak barne), baita piknik egitea eta etxeko animaliekin joatea ere.

NAFARROAKO BELARDI LORATUEN LEHIAKETAREN 2. EDIZIOA MARTXAN DA

Orekan Nafarroako Ingurumen Kudeaketak Nafarroako Belardi Loratu Lehiaketaren bigarren edizioa abiatu du, sega-belardiak zaintzen dituzten abeltzainak saritzeko eta balio ekologiko eta kulturala duten paisaia horien ikusgarritasuna areagotzeko. Lehiaketa Nafarroako Ipar-mendebaldeko, Pirinioetako eta Iruñerriko nekazaritza-eremuetara zuzenduta dago.

Parte hartu nahi zutenek ekainaren 30era arte eman zezaketen izena, lursail bakarra aurkeztuta. Epaimahai aditu batek belardien lore-aniztasuna, balio natural handiko elementuak eta abeltzaintza-kudeaketa baloratuko ditu.

Irabazleak biodibertsitatearen aldeko konpromisoa aitortzen duen bereizgarria jasoko du, eta sari-banaketa abuztu-ko azken igandean egingo den Uharte Arakilgo Artzain Egunean izango da.

CASA47 ENPRESA PUBLIKOAK KUDEATUKO DITU LEKUNBERRIKO ITURRIBURU KALEKO 36 ETXEBIZITZAK

Etxeak urte luzez hutsik egon ondoren, legegintzaldi honetan berritu eta konpondu dituzte. 2010eko higiezin krisiaren ondoren, SAREBen esku gelditu ziren etxebizitzak, eta orain CASA47 Espainiako Gobernuaren enpresa publikoak hartuko du haien kudeaketa.

Etxebizitzak alokairu eskuragarri bideratuko dituzte, eta esleipen irizpideak CASA47k zehaztuko ditu. Lekunberriko Udalak, Nafarroako Etxebizitza Departamentuak eta Nafarroako hainbat bilera eta lan saio egin dituzte prozesuan, baina azkenean CASA47k Estatu osorako irizpide berdinak aplikatzea erabaki du.

Udalak adierazi du enpresa publikoarekin harremanetan jarraituko duela eta informazio berria dagonean herritarrei jakinaraziko diela.

► Eneko Saralegi Martinikorena (Errazkin)



Aniak behartu ondotik
pasa behar dut kantura
lan berria ongi burutzeko
baditut nahiko abentura
gaurkoan ez dezazuela parrik in
nire bertsoen kontura
irakasle ona behar dut nik
hartzen joatez gero ohitura.

Uitziko irakasle batengana
jo beharko laguntza bila
erremontean ere omen da mutila
oso abila
hemen erakutsi beharko du
prestatzen hasi dadila
hurrengo hilean botako digun
errimadun segi dadila.

Doinua: Hiru aste badirela. Hurrengoa: Xabier Azpiroz Beunza (Uitzi).

Lagunasesoría S.L.

Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

Bar Ainhua

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitarakoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croissant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)
948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com



Aitor Balda Irungarai (Lekunberri).

GIZON EGOSKORRAK

Euskal Herriko gizarte honetan, zoritxarrez, astero pairatzen dugu eraso matxistaren bat edo gehiago: emakumeek pairatzen dute gehienbat, jakina, baina horrek gizarte osoa erretratatzeko gaitu, eta, gizonok, noski, ez gaitu batera leku ederrean uzten. Ez dezagun ahatz, halaber, gizonetako batzuek beste gizon batzuei ere, batzuetan, eraso egiten dietela, azken hauen sexu orientazio dela bide, gayak eta abar.

Zoritxarrez, egun batean, emakume bat edo gehiago hiltzen dute; beste egun batean, beste hainbeste edo gehiago zauritu; besteren batean, seme-alabak hil edo zauritu, indarkeria bikarioa praktikatu eta abar, eta abar. Mota guztietako gaiztakeriak eta delituak egiten dituzte gizonetako batzuek emakumezkoen aurka; burutzen zaizkien guztiak. Aipatutakoez gain: mehatxuak, jazarpenak, urrutiratze aginduak ez betetzea, eta bat eta beste. Kontua da, gizonetako horiek, kosta ahala kosta, mendekua praktikatu nahi izaten dutela, eta, gehiegitan praktikatzeko dute, gainera, egin beharko luketena denean, beren harropuzkeria alde batera utzi eta onartu bikote horren harremana bukatu dela, besterik gabe, eta, orain tokatzen dela, ahalik eta modurik egokienean banatzea, emakumeak bake santuan uztea, ez direlako beren jabetza, eta, denak ahalik eta hobekiena bizitzea.

Baina, ez, argi eta garbi dago gizonetako, betidanik-edo, geneetan sartuta eduki dugun joera gaizto, maltzur, aldrebes, oker eta desagoki hori kostatzen ari zaigula guregandik kanporatzea. Oraindik ez dugu lortu eta hori oso nabarmen gelditzen ari da gizarte honetan, zoritxarrez, emakumeentzat.

Gizon gaizkile eta bortxatzaile horiek, horrelako ekintza gorrotagarriak egin ondoren, batzuek beren buruaz beste egiten dute (beranduegi; egitekotan, lehenago egin beharko lukete, kaltea gauzatu baino lehen); edo beren buruaz beste egiten saiatzen dira beste batzuk, lortu gabe; beste batzuek, ordea, beren burua entregatu egiten dute polizia etxean; eta, azkenik, beste gaiztagin batzuk, aldiz, ihes egiten ahalegintzen dira, baina, azkenean, gehienak harropatuak eta epaituak izaten dira.

Noiz ikasiko dute/dugu gizonetako mendekua ez erabiltzen, emakumezkoak errespetatzen, ez zapaltzen eta menderatzen, gure jabetza balira bezala?

Xanti Begiristain Madotz.
Auritz, 2026-05-18.

Hurrengo:

Markel Satrustegi Mariñelarena (Betelu)

maite ditut maite gure bazterrak


Errazkin Ttuturre zirkularra Belutatik

Ibilbidea: zirkularra
Distantzia: 11 km
Desnibela: +800 m
Zailtasuna: ertaina




Oier Goñi Martinikorena
(Errazkin)

Zergatik aukeratu dut?
Errazkindik Malloetara igotzeko buelta politenetakoa delako.



Bidea:

- 1 Errazkindik Kastabal bukaeraino igo behar da hasteko.
- 2 Bertan, Belutako bidea hartu behar da. Bi iturri eta begiratoki bat daude bidean.
- 3 Belutako langa pasa eta eskuinetara joan behar da itxitura jarraituz goraka.
- 4 Goran, hesiaren beste aldera pasa eta Subizelaigaine tontorrera igotzen da.
- 5 Hemendik jaitsi, Alborta eta Uarrain puntak pasa eta Ttuturrera igo.
- 6 Jaisteko, Intzako bidea hartu eta erdibidean eskuinetara hartu behar da ehiztarien bidetik Kastabalera jaisteko eta Errazkinen bukatzen da.



●● Andoni Tolosa (Azkarate).

“Energia komunitatea hainbat kidek osatutako elkarte bat da”



Andoni Tolosa Azkarate

“Gure energia sortu nahi genuen”

Beharrezkoak al dira halako ikastaroak?

Bai, beharrezkoak dira. Azkenean, fakturan bertan informazio asko agertzen da, eta gainera datu horietako asko derrigorrez agertu behar dira. Baina esan nahia eta eragina ulertzea ez da batere erraza. Horregatik, ikastaro batek asko laguntzen du, eta nik uste dut beharrezkoa dela horrelako tailerrak egitea. Duela gutxi, adibidez, fakturaren inguruko tailer txiki bat egin genuen Araizko udaletxean, eta oso interesgarria izan zen. Horrelako saioek aukera ematen dute prozesu horiek hobeto ulertzeko eta, batez ere, gure energia-kontsumoarekin zer egiten ari garen jakiteko.

Azkaraten energia komunitatea sortu zuten duela hiru hilabete, baina prozesua askoz lehenago hasi zen. Izan ere, lau urteko bidea egin dute proiektua martxan jartzeko.

Nola sortu zen energia komunitatea?

Dagoeneko lau urte igaro dira, eta prozesu luzea izan da, batez ere bidean aritu garenontzat; oztopo ugari izan ditugu. Azkenean, badirudi behintzat martxan jartzea lortu dugula.

Hasieran, herriko hainbat lagun kezkatuta geunden energiaren prezioarekin eta ingurumenaren egoerarekin, besteak beste. Beraz, gure energia sortu nahi genuen, eta trantsizio energetikoaren bidean horrelako pauso bat ematea garrantzitsua iruditu zitzaigun.

Herritar batzuk Orexara joan ziren, han antzeko proiektu bat martxan baitzuten. Azkaratera itzuli zirenean, kontzejuak sensibilizazio-kanpaina

bat antolatu zuen. Horretarako dirulaguntza lortu genuen, eta laguntza horri esker herriko hainbat lagunok prestakuntza saio batean parte hartu genuen.

Energiaren eta elektrizitatearen inguruko hainbat alderdi landu genituen: fakturak nola ulertu, banatzaileak eta sektorearen funtzionamenduari buruzko beste hainbat kontu. Oso prestakuntza interesgarria izan zen, begiak irekitzen lagundu ziguna.

Hortik abiatu zen energia komunitatea. Orduan, izena zehaztu, eta elkarrearen oinarriak eta funtzionamendu-baldintzak finkatu genituen. Une hartatik aurrera proiektua garatzen hasi ginen.

“Fakturan bertan informazio asko agertzen da”

Zer da energia komunitate bat?

Energia komunitatea hainbat kidek osaturiko elkarte bat da. Juridikoki forma ezberdinak har ditzake, baina guk, kooperatiba batean integratzea erabaki genuen. Zergatik? Nafarroako hainbat proiektu ezagutzera joan ginen. Esate baterako, Espartza Galarreko eredu ezagutu genuen. Han ikusi genuen energia komunitatea Energia Komunitateen Sarearen barruan zegoela integratuta. Horren inguruko informazioa bildu genuen, eta ikusi genuen kooperatiba horretan sartzeak abantaila handiak zituela.



“Helburua da bakoitzak behar duen energia-kopurua jasotzea”

Zer gertatzen da erabiltzen ez duen energia horrekin?

Martxoaren 12an hasi ginen energia sortzen; beraz, esan dezakegu orduetik proiektua martxan dagoela. Argitasuna dagoen unetik plakak energia sortzen hasten dira.

Plakak energia sortzen ari diren unean, etxean kontsumitzen duzun elektrizitatea ez duzu saretik edo merkaturatzailearen bidez hartzen. Hor dago benetako aurrezpena. Hala ere, gerta daiteke une horretan etxean ez egotea edo kontsumoa oso txikia izatea, eta plakek kontsumitzen ari zarena baino energia gehiago sortzea. Kasu horretan, energia hori ez da galtzen: sarera isurtzen da, eta merkaturatzaileak ordainsari txiki bat ematen du trukean.

Helburua, beraz, sortzen dugun energia ahalik eta gehien unean bertan kontsumitzea da. Ikastaroetan ikasi genuen gauzetako bat, hain zuzen ere, gure ohiturak neurri batean egokitu behar ditugula. Etxetresnak erabiltzeko ordutegiak moldatuz gero, aprobetxamendu handiagoa lor dezakegu. Adibidez, garbigailua jarri behar badugu, eguerdian edo eguzki-ordueta jar dezakegu. Egun oso

Izan ere, sareak laguntza ematen du proiektua garatzeko behar diren izaipideak lortzen: administrazio-lanak, dirulaguntzak kudeaketa, proiektua diseinua...

Horregatik, Energia Komunitateen Sarean integratzea erabaki genuen. Gaur egun, kooperatiba txiki bat gara kooperatiba handiago baten barruan. Juridikoki, kooperatiba horren sekzio bat gara. Formula juridiko bakarra ez da, baina guretzat egokiena eta erosoena zela iruditu zitzaigun.

“Energia Komunitateen Sarean integratzea erabaki genuen”

Azkarateko energia komunitatea da, beraz?

Bai. Une honetan etxe bakoitzeko kide bat da kooperatibako bazkide. Guztira 19 bazkide gara, eta horietatik 15ek parte hartzen dute energia-proiektuan. Herriko edozein pertsona sar daiteke kooperatiban. Hasieratik argi izan dugu ezin dugula inor kanpoan utzi. Halaber, norberak askatasun osoa du kooperatibatik irteteko.

Hala ere, bazkide guztiek ez dute modu berdinean parte hartzen. Bazkide bakoitzak 100 euroko ekarpena egiten du kooperatiban sartzeko, baina proiektuan duen parte-hartzea bere energia-kontsumoaren arabera da. Izan ere, etxe guztiek ez dute kontsumo bera. Gainera, proiektuaren onurak ez dira berdinak denentzat. Helburua da bakoitzak behar duen energia-kopurua jasotzea.



BERTAKO HARAGIA

Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldatutako platerak. Etxera eramateko zerbitzua ere eskeintzen dizugu.

Antigua kalea 7
31890 BETELU

948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com



SAN MIGUEL
gasolindegia



Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu



etxeko hestekiak

LEKUNBERRI



iluna bada, eta presarik ez badago, hurrengo egunera atzeratu daiteke. Nire kasu pertsonalean, behintzat, murrizketa txiki bat ikusi dut dagoneko. Eta zenbat eta gehiago egokitu gure kontsumoa eguzki-orduetara, orduan eta handiagoa izango da aurrezpena.

“Orduan eta handiagoa izango da aurrezpena”

Martxoaren 12an jarri zenuten martxan energia komunitatea. Nolakoa izan da prozesua?

Prozesua luzea izan da. Lehenengo, 60 plaka inguruko aurreproiektu bat prestatu genuen. Hasieran, 20 bazkide ginen, baina azkenean 15ek jarraitu zuten aurrera. Guztira, 21 kilowatteko instalazioa aurreikusi genuen. Ondoren, dirulaguntza eskatu eta urtebete inguru igaro zen.

Lehenengo deialdian dirulaguntza eman ziguten, baina ez zen gauzatu. Bigarren aldiz, otsailean jaso genuen baiezkua, eta urriaren 15erako proiektua guztiz amaituta egon behar zen.

Proiektua kontratatu genuen ingeniari-tzaren enpresa batekin eta obrak prestatzen hasi ginen. Hasieran plakak teilatu batean jartzea aurreikusi genuen, baina ez ginen ados jarri eraikinaren jabearekin. Denbora oso gutxi genuenez, beste kokaleku bat bilatu behar izan genuen.

Kontzejuak lursail bat utzi zigun 20 urterako. Lurra aldapatsua zen, eta bi plataforma egin behar izan genituen plakak jartzeko. Azken orduko aldaketa horiek direla eta, 10.000 euro inguruko gaitzua izan genuen. Hala ere, plataformak egin ondoren, plakak instalatu zituzten, sistema guztia konektatu zuten, eta urriaren 15erako dena prest zegoen.

Une horretan bazkide bakoitzak bere zatia ordaindu zuen, aurrez adostutako irizpideen arabera. Gero dirulaguntza jaso genuen eta egindako inbertsioaren %30 inguru berreskuratu genuen. Hala ere, obra amaitu zenetik martxoaren 12ra arte ia sei hilabete igaro ziren instalazioa martxan jarri arte. Denbora hori guztia administrazio-izapideetan eta tramiteetan joan zen.

Oztopo asko izan ditugu bidean, baina behintzat martxan jartzea lortu dugu, ez dugulako etsi. Badira bidean gelditu diren beste proiektu batzuk ere, prozesua benetan nekagarria eta etsigarria izan baitaiteke.

Zailtasun handienak ez dira ekonomikoak izan; administrazio-tramiteak, lizentziak eta antzeko kontuak izan dira konplikatuena. Gainera, ezagutzen ez duzun mundu batean mugitzeak, zalantzak sortzen ditu.

“Oztopo asko izan ditugu bidean, baina behintzat martxan jartzea lortu dugu”

Animatuko al zenuke jendea energia komunitate bat sortzera?

Bai, zalantzarik gabe. Prozesuan daudenei pazientzia izateko esango nieke, eta batez ere ez etsitzeko. Eta hasi nahi dutenei, berriz, lehen pausoa ematera animatuko nituzke. Bidea luzea izan daiteke, baina hasten ez bagara ez gara inoiz helmugara iritsiko.

Horrelako proiektuek herritarrak elkartu, elkarrekin lan egin eta helburu komun baten alde aritzeko aukera ematen du.

KULTUR

2026 ekainak 20 irailak 21 | UDAKO KULTUR PROGRAMAZIOA

UZT 31 19.00 **LEKUNBERRI** Herriko Plaza
ACHÉ PA'TI
Xuxurlaka

IRA 13 19.00 **LEITZA** Euskal Herria Plaza
TXORI ZURI DANTZA TALDEA
Txori Zuri Dantzan



UZT 1 ABU 31 **BERTIZKO JAURRERIA ERAKUSKETA**
DIBUJOS MEDICINA SENDAGAIK
MYRIAM CAMEROS SIERRA

KOTXERA
Taberna • Jatetxea • Brasa
948 50 43 52
kotxera13.com
Caserio Benta Zaharra,
Mugiro (Navarra)

Antsoñea
BASERRIKO GAZTA
948 513 468
www.antsonea.com
Uztegi (Araitz)

NEKAZARI, S.L.
Kubota
STIHL
Antonio Carraro
Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com



▶ ARAITZ BETELUKO EGUNA PRIMERAN OSPATU DUTE

Maiatzaren 30ean, ospatu zuten aurtengo Araitz eta Beteluko Eguna. Egun osoan zehar adin guztientzako jarduerak izan ziren: txistulariak, umeen pilota partidak, kuadrillen arteko jolasak, dantzari txikien saioa, herri bazkaria eta 6etzi taldearen erromeria, besteak beste.

Bazkalostean egin zuten eguneko unerik hunkigarrienetako bat: aurtengo omenaldia Roman Ariztiarentzat izan zen, Arribeko surtidorearen jabe izandakoarentzat. Duela gutxi erretiratu zen, eta herrikideek bere urte luzeetako lana eta herriari egindako ekarpena eskertu zizkioten.

Parte-hartze handiak eta giro bikainak izan zen aurtengo Araitz eta Beteluko Eguna.



▶ ARAIZKO KABLEAREN EGUNA PRESTATZEN HASI DIRA

Araizko Kablearen Egunean giro aparta, auzolana eta ibarreko ondarea oroitarazteko egun berezia izan da beti.

Aurten ere, ekimena antolatzeko lehen pausoa emango dute eta herritar guztiak gonbidatuta daude parte hartzera. Segan, belarra biltzen, musikarekin, antzerkian edo beste edozein modutan lagundu nahi baduzu, zure ekarpena ongi etorria izango da.

Horretarako, bilera-merienda irekia egin zen ekainaren 5ean, 19:30ean, Arribeko elkartearen.



▶ 'EZINBESTEKOAK' KONTZERTU TEMATIKOAK ARRAKASTA HANDIA IZAN DU

Ekainaren 5etik 12ra bitartean egin ziren "Ezinbestekoak" izeneko kontzertu tematikoek harrera bikaina izan zuten. Guztira, Aralar Musika Eskolako 239 ikaslek hartu zuten parte emanaldietan.

Aurten, kultur ondarean ezinbestekotzat jo daitezkeen abestiei eskaini diete garrantzia. Hala, 2000ko hamarkadako bederatzi kanta ezagun hautatu zituzten.

Emanaldien amaieran, antolatzaileek eskerrak eman zizkieten bertaratutako guztiei, udal erakundeei, ikasleei, familiei eta irakasleei. Era berean, aitortza berezia jaso zuten abesbatzetako zuzendariak eta Satxa Soriazuk, kontzertuaren zuzendaritzagatik eta obra guztien moldaketak egiteagatik.



▶ LAU MAKILA BERRI UTZI DITUZTE LEKUNBERRIKO TXALAPARTA FINKOAN

Txalaparta Taldeak 2025eko martxoaren 30ean inauguratu zuten Lekunberriko Txalaparta Finkoa. Egun hartatik, zilindro batean dagoen txalapartaren ondoan, 4 makila jarri zituzten. Jaberik gabeko lau makila. Dagoeneko, higatu egin dira. Berniza galdu dute, kolpez borobildu dira, ehunka esku-ahurren kolore iluna hartu dute.

Igaro diren hilabeteetan txalapartara hurbildu denak txalaparta errespetatu du eta makilak errespetatu ditu. Hala, pasa den hilabeteen lau makila berri utzi zituzten Lekunberriko txalapartaren ondoan.

LIBURUTEGI IBILTARIA IZAN ZEN BETELUN

Ekainaren 24an, LAGA Liburutegi Ibiltaria izan zen Beteluko Indiano Etxean.

Maileguan hartutako liburuak bueltatzeko eta berriak hartzeko aukera izan zuten herritarrek. Liburutegiko txartelik ez zuenarentzat ere aukera bikaina izan zela azpimarratu dute antolatzaileek.



ETXEBIZITZA KOOPERATIBOEN BILERA INFORMATIBOA EGIN DUTE

Lekunberriko Udalak eta NASUVINSAK informazio-bilera irekia antolatu dute herritarrei etxebizitza kooperatiboen eredua aurkezteko. Saioa ekainaren 22an izan zen Lekunberriko Udaletxean. Bertan, Arkaitz Goikoetxea Lekunberriko alkateak, Javier Burón NASUVINSako zuzendari kudeatzaileak eta José Vidal NASUVINSako teknikariak hartu zuten parte.



Mendialdeko torturatuei aitortza egin diete, egia eta memoria aldarrikatuz



Mendialdeko hainbat herritako bizilagunak maiatzaren 31n bildu ziren Leitzako Herri Aretoan: tortura jasan duten pertsonak, haien senideak, udal ordezkariak eta erakundeetako kideak, besteak beste. Aitortza ekitaldia "Minek ez gaitzabela lotu, jarrai dezagun hegan" izenburupean egin zen, Nafarroako Torturatuen Sareak eta Egiari Zor fundazioak antolatuta. Hala, urte luzez isilean edo itzalpean egon den errealitate bati ikusgarritasuna ematea eta torturaren biktimak izan diren herritarren aitortza publikoan beste urrats bat egitea izan ziren helburu nagusiak.

Ekitaldiak hunkiduraz eta sinbolismoz beteriko hainbat une izan zituen. Hasieran, bertsoariak testuingurua jarri zuten, eta ondoren eskualdeko gazte batek eta heldu batek belaunaldien arteko transmisioari buruzko hausnarketa partekatu zuten. Izan ere, torturaren ondorioak ez dira zuzenean pairatu dutenengan bakarrik gelditzen;

seme-alabek, senideek eta ondorengo belaunaldiek ere jaso dituzte askotan isiltasunaren, beldurraren eta ulertu gabeko zaurien ondorioak.

Horren erakusgarri izan zen Jon Arangoaren testigantza. Amparo Arangoaren senideak familiaren bizipenetatik abiatuta azaldu zuen

nola iritsi zen gertatutakoaren egia ezagutzera. Nerabezaroan etxean aurkitutako aldizkari bateko argazkiek piztu zizkioten galderak, eta orduan hasi zen familiak urteetan gordetako minaren eta beldurraren zergatiak ulertzen. Bere hitzetan: "Belaunaldi berrien ardura da gertatutako hori ahanzturan eror ez dadin lan egitea eta egia belaunaldiz belaunaldi transmititzea".

Torturaren errealitatea eta aitortzaren garrantzia

Ekitaldian zehar hainbat aldiz gogoratu zen Amparo Arangoaren kasua. Tortura jasan ondoren argitaratutako irudiek nazioarteko oihartzuna izan zuten garaian, eta gaur egun ere torturaren aurkako borrokaren ikur bihurtuta jarraitzen dute. Antolatzaileen esanetan, ordeak: "Amparorena ez da salbuespen bat izan, Euskal Herrian milaka lagunek bizi izan duten errealitate baten adibide baizik".

Egiari Zor fundazioko eta Nafarroako Torturatuen Sareko ordezkariak gogorarazi zuten Euskal Herrian

"Amparorena ez da salbuespen bat izan, Euskal Herrian milaka lagunek bizi izan duten errealitate baten adibide baizik" - Egiari Zor Fundazioa

5.000 tortura kasu baino gehiago dokumentatu direla. Mendialdeari dagokionez, azken hamarkadetan 50 kasutik gora identifikatu dituzte Leitz, Larraun, Lekunberri, Arait, Betelu, Areso, Goizueta eta Aran. Azaldu zuten, pertsona askoren giza eskubideak urratu zituzten, eta zauri horiek oraindik ere presente daude herritarren eta familien memorian.



Ekitaldian parte hartu zuten udal ordezkariak ere bat egin zuten aitortza horrekin. Udalen izenean, Dabid Anaut Leitzako alkateak hartu zuen hitza, eta elkartasuna eta babesa adierazi zizkien tortura eta tratatu txarrak pairatu zituzten herritarrei eta haien senideei. Memoria eraikitze orduan ikuspegi anitzak eta errealitate desberdinak kontuan hartu behar direla azpimarratu zuen, baina betiere giza eskubideen urraketak jasan zituzten pertsonak erdigunean jarri.

Anautek gogorarazi zuen egia, justizia, erreparazioa eta ez-errepikatzeko bermeak direla memoria-politiken oinarriak izan behar dutenak. Horregatik, biktimak guztien aitortza defendatu zuen, eta memoria hori zaintzea eta transmititzea, herri eta erakundearen ardura dela nabarmendu zuen.

Egia argitaratzeko bidean

Antolatzaileek azaldu zuten, azken urteetan urrats garrantzitsuak eman dira aitortzaren arloan. Nafarroako Gobernuak jada aitortu ditu ofizialki Mendialdeko bi torturatu: Amparo Arangoa eta Jose Maria Aleman. Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoan aurretik aitortuak izan dira Ildefonso Iriarte araiztarra eta Amparo Arangoa bera. Aitortza horiek positibotzat jo zituzten, baina aldi berean ohar-tarazi zuten oraindik ere kasu asko daudela argitu eta aitortu gabe. Horregatik, lanean jarraitzeko konpromisoa berretsi zuten. Haien esanetan, "torturaren inguruko egia osorik ezagutzea ezinbestekoa da memoria kolektiboa eraikitze eta etorkizunean halakorik berriz ez gertatzeko". Horretarako, biktimen arteko saretzea, lekukotasunak jasotzea eta instituzioen inplikazioa

beharrezkoak direla azpimarratu zuten.

"Torturaren inguruko egia osorik ezagutzea ezinbestekoa da" - Egiari Zor Fundazioa

Ekitaldiak sinbolismo handiko amaiera izan zuen. Oholtzan egon zen denbora guztian Amparo Arangoaren irudian oinarritutako mosaiko bat, eta amaieran mosaiko hori osatzen zuten zatiak banatu zituzten udal ordezkariak, Nafarroako Gobernuako Biktimen Arretarako Bulegoko ordezkariak eta antolatzaileen artean. Keinu horren bidez, egia, aitortza eta erreparazioaren aldeko konpromiso partekatua irudikatu nahi izan zuten.

Musikak eman zion amaiera goizari. Burutik taldeak Fermin Balentziak Amparo Arangoari eskainitako abestia interpretatu zuen, eta azkenik, Aranoko Ansa ahizpek eta Maixux Zugarramurdik lagunduta, bertaratu guztiek batera kantatu zuten Txoria txori.



Beteluko Festak ederrak izan dira

San Pedro jaiak ospatu zituzten beteluek ekainaren 25etik 29ra. Bero handia egin arren, giro ederrean joan ziren herriko jaiak. Kontzertuak, kirola, dantzak, gaupaseroen argazkia, elektrotxaranga, txokolatadak, herri afaria jolasak... Gustu guztietarako egitaraua izan zuten. Bertakoen giroa eta parte-hartzea aipagarria izan zela adierazi dute herritarrek.



Madozko festak primeran ospatu dituzte

Ekainaren 20an ospatu zituzten Madozko festak. Martin Argaña Arribilagak jaurti zuen suzeria, Joseba Rubio Garcia alboan zuela. Egunean zehar esku-pilota eta frontenis partidak, txupinazoa, etxez etxeko erronda, haurrentzako ginkana eta Madozko jaietako antzinako argazkien proiektzioa izan ziren. Arratsaldea bingoan jokatzeko aritu ziren eta askaria goxo batekin amaitu zuten eguna.



Mugiroko festak ospatu dituzte ekainaren amaieran

Ekainaren 27an eta 28an ospatu zituzten Mugiroko festak. Larunbatean, bazkaria eta bingo izan ziren Mugiroko Bentan. Ondoren, herriko ostatuan mus txapelketa jokatu zuten. Igandean, berriz, erronda egin zuten goizean zehar, eta arratsaldean Larraungo Pilota Eskolako partidak izan ziren.



Lekunberriko sanjoanak ederki joan dira

Ekainaren 20tik 24ra bitartean ospatu zituzten Lekunberriko sanjoanak. Festa Batzordeak eta Udaleko Kultura Sailak antolatutako egitarauak musika, gastronomia eta herri giroa uztartu zituen bost egunez.

Jaiak ekainaren 20an hasi ziren: paella lehiaketa, garagardo azoka eta Mataton egitasmoaz gozatzeko aukera izan zen. Hurrengo egunean, ekainaren 21ean, Larraun Kantuz ekimena eta puzgarriak izan ziren protagonista.

San Joan bezperan, ekainaren 23an, suaren inguruko ospakizunak egin ziren. Herritarrek ohiko sua piztu zuten, urteko gau berezienetako bat ospatzeko. Amaizteko, ekainaren 24an, San Joan Egunean, herri bazkaria egin zuten, jaietako azken egunari amaiera emateko.



195 lagun elkartu ziren Larraungo Eguneko bazkarian

Ekainaren 13an ospatu zen aurtengo Larraungo Eguna. Arrakasta handia izan zuen, 162 heldu eta 33 ume bildu baitziren Gorritin egindako bazkarian. Aurtengo omendua Martin Juanena astiztarra izan zen, Aralar Irratian urte luzez lanean aritu eta duela gutxi erretiratutako esataria.

Goizean goizetik hasi zen festa. Ibarreko herrietatik etorritako txistulariek argi-soinua eskaini zuten, eta 09:00etan abiatu zen Ttuturrerekin antolatutako mendi ibilaldia.

Pilota partidek ikusmin handia sortu zuten goizean, eta ondoren Aralar Udal Musika Eskolako ikasleek beren emanaldia eskaini zuten. Jarraian, Tirikitrauki Dantza Taldearen saioak plaza girotu zuen, eta eguerdian Larraungo Ingurutxo dantzatu zuten. 14:00etan hasi zen herri bazkaria. Bazkalostean, Joanes Illarregik eta Julio Soto gorritiarrek bertso-saio bikaina eskaini zuten.

Arratsaldean ere ez zen jarduerarik falta izan. Haurrentzako jolasen ostean, bingo musikatu egin zen gazte eta helduen parte-hartze zabalarekin. Egunari amaiera emateko, *Trikiteens* taldearen dantzaldia izan zen eta bertaratutako askok iluntzera arte luzatu zuten festa.

Antolatzaileek oso balorazio positiboa egin zuten, baina gazteen parte-hartze handiagoa behar dela azpimarratu zuten. Beraz, gaztea bazara eta datorren urteko Larraungo Eguna antolatzen lagundu nahi baduzu, jar zaitez Larraungo Eguneko Batzordearekin harremanetan.



Iñigo Garaioa MARGOLARIA
696 658 288
LEKUNBERRI

OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri
OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

TAXILON
Lontxo Otamendi Artola
661 202 249
(9 plaza)
Atallu - Arantz
E-posta: lotamendi5@gmail.com

IORTIA CLINICA DENTAL - HORTZ-KONDA
Vanessa de Abreu Perdomo - Odontologoa Kol. Zk. 740
Lekunberri: 948 604 804 - 618 818 005
Altsasu: 948 467 603 - 667 661 769
ODONTOLOGIA OROKORRA - INPLANTEAK -
ORTODONTZIA - HORTZ-ESTETIKA - PADI

aitz berri
edertasun zentroa
Lako beikoa
Betelu 31890
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

ILE APAINDEGIA
ESTETIKA
PRESOTERAPIA
PODOLOGIA
LASER DEPILAZIOA ETA
DEPILAZIO ELEKTRIKOA
JENDE HELDUARENTZAT
ETXEZ ETXEO ZERBITZUA.
MIKROPIGMENTAZIOA
EZPAINETAN
MIKROBLADING
BEKAINETAN
@aitzberri

'Sendabelarrekin Ukendua' tailerra Lezaetan

Maiatzaren 19an, Araxes ikastetxeko LH2 eta LH3ko ikasleok egun berezia izan genuen. Natura kontuak lantzen ari ginela, Lezaetako, "gure Bakartxok" sendabelarrekin ukendua egiteko tailerra antolatu eta eskaini zigun, besteak beste.

Hasteko, fitxetako informazioa irakurri genuen, sendabelarrak aurkitu eta jaso genituen.. Ondoren, beraietako batzuekin, pausoz pauso, ukendua prestatu genuen. Gainerakoak eskolara eraman genituen bildumatxo bat prestatzeko. Bitartean, hamaiketako ederra egin genuen, parkean jolastu eta margoketan ere aritu ginen. Eguraldia ere zoragarria egin zigun.

Gainera, bakoitzak bere etxera "Milagritos" ukendua eraman zuen. A ze opari ederra! Goiz zoragarria! Eskerrik asko, Bakartxo!

Araxes Ikastetxea.



Beteluko eskolatik Hondarribira

LH2-LH3-LH4ko ikasleak Hondarribiko "Elkano" aterpetxean hiru egun ahaztezin pasa ditugu elkarrekin.

Aterpetxeak jolasteko aukera ederra eskaintzen du: bai kanpoan, bai barruan. Jantokia ederra du eta otorduak bikainak; logelak berriz oso erosoa. Dena bikain!

Lehenengo egunean Hendaiara autobusez joan eta bertako hondartza bainatu eta jolastu ondoren, txalupaz Hondarribira joan ginen. Aireportua ere bisitatu nahi genuen baina ahalegin guztiak egin ondoren, ez genuen lortu.

Bigarren eguneko goizean, euria ari zuenez, antzerkiak prestatu genituen taldeka. Sekulako pagotxa izan genuen! Beste talde bat "grabatzen" ari zen eta beraien moztarrok utzi zizkiguten. Arratsaldean, itsasargiraino paseotxoak egin genuen, kaia bisitatu eta izozki gozo-gozoa dastatu genuen.

Gauean, berriz, diskoteka egin genuen. Dantzari trebeak gureak! Biharamunean hondartza bainu bat hartu, neka-neka eginda autobusean sartu eta.... etxera! Bai ongi pasa genuela eta bai ongi moldatu ginela maila desberdinekoak elkarrekin!

Hurrengora arte!
Araxes Ikastetxea.



Printza VII. urteurrena

Ekaina osoan zehar ospatu zen Printza VII. urteurrena. Hainbat kultur ekitaldi antolatu ziren Lekunberrin, eta lagun ugari bertaratu ziren kontzertu, antzerki eta bestelako jardueretan parte hartzera.

Egitarratuari hasiera emateko, *Borla eta Orsini* taldeek kontzertu bikainak eskaini zituzten ekainaren 5ean. Ekainaren 14an, berriz, Inprofestakzioa antzerki inprobisatuaren ikuskizunak ikusleen algarak sortarazi zituen, eta ondoren, pikoteo goxoa izan zen. Halaber, ekainaren 17an eta 18an Martillo Txiki Perkusio Eskolaren festa-kontzertuak izan ziren, eta ekainaren 23an bazkari autogestionatua egin zuten.



80+ bazkaria egin dute

Ekainaren 19an 80+ bazkaria ospatu zen. Larraungo herri desberdinetako adinekoak elkartu ziren, eta aspaldi ikusi ez ziren lagun eta ezagunak berriro elkartuz. 14 pertsona bildu ziren Astizko Ostatuan, bailarako sei herri ezberdinetatik etorriak. Bazkariaren inguruan solasaldia eta giro atsegina nagusitu ziren. Paumak, Fundación Caja Navarra eta Fundación la Caixa bultzatutako Programa Innovaren laguntzarekin garatutako 80+ proiektuak bultzatu du ekimena.



MOTZ-MOTZEAN

KOLDO NUÑEZ

Eskoizian ikusitakoak.

Euskal Herritik kanpo bidaiatzeak balio izaten dit gauza berriak ezagutzeko. Aurtengo maiatzean Eskoizian egon ginen nire alaba nagusia eta bere mutila bisitatzen, lehenengo urtean egin genuen bezalaxe. Bi bisita hauetan deigarria egin zaidan zerbaitegion da. Lehenengo urtean, Glasgow erdian larunbat baten eguerdian bi bilkura politiko zeuden kale nagusian, bata bestearen aurrean. Bilkura bat Israelen aldekoa zen. Kantuak eta pankartak. Pare parean, Palestinaren aldeko beste bilkura bat; pankartak, banderak eta kantuak ere. Bi taldeak ia elkar ukitzeko moduko distantzian eta haien artean, ohiko uniformeekin polizia gutxi batzuk. Hala ere, bi taldeetako kideek ez zieten elkarri oihurik edo irainik egiten, dena oso baketsu zen.

Aurten protestante unionisten danborradak ikusi ditugu, larunbat baten goizean ere Glasgow erdian. Kalez kale, txirulak, danborrak, pankarta eta polizia pare bat. Astero ateratzen dira. Kontserbadoreak dira eta ez dute Eskoziaren independentzia nahi, eskoziar asko edo gehienak independentziaren aldekoak badira ere. Jendeak begiratzen zituen pasatzen eta inork ez zuen haien aurkako ezer esaten edo egiten,

Eskoizian, itxuraz, arazoak ez dituzte sortzen erlijioak edo politikak, bai aldiz, futbolak, bertan ikusi genuen bezala. Hor bai borrokak. Hor bai etsai amorratuak. Hortaz, arrazoi desberdinak badira ere, Euskal Herrian bezala jendearen artean dibisioa dago. Horretan haiek eta gu berdin, oraindik asko ikasteko.



tanatorios
IRACHE
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA
• 948 19 70 70 •
www.tanatoriosirache.es

Construcciones
Gañarbe

ERREABILITAZIOAK
IGELTSERITZA
FATXADAK
TEILATUAK

Oztegin kalea 2, Lekunberri
construccionesganarbe@gmail.com

616 457 540

●● Maria Eguzkiza Argaña (Albiasu) eta Irati Garziarena Guridi (Gorriti).



Maria Eguzkiza eta Irati Garciarena lagunekin, Labrit pilotalekuan.

"Palan ere maila handiko emakume kirolariak daude"

Maria Eguzkiza Argaña zortzi urterekin hasi zen palan jokatzeko eta Irati Garziarena Guridi 10 urterekin. Egun, Nafarroako Foru Komunitateko Pala Txapelketa irabazi dute. Izan ere, Larraun Pilota Elkarteko bi kirolariak denboraldi bikaina osatu dute.

Non entrenatzen zarete eta zein modalitateetan?

Irati: Lekunberrin entrenatzen gara. Maria: Frontoian aritzen gara, egurrezko pala tradizionalarekin.

Irati: Modalitate horrek pala trinkoa du izena.

Maria: Horrez gain, beste egun batzuetan trinketea jokatzeko dugu, pala argentinararekin.

Irati: Hor jokoa erabat aldatzen da. Pilota askoz biziagoa da, eta pala ere arinagoa. Batzuetan 30 metroko frontoian ere jokatzeko dugu.

Nafarroako Foru Komunitateko Txapelketa irabazi duzue...

Irati: Guztira lau bikotek parte hartu genuen. Lehen fasean hiru partida jokatu genituen, denak denen aurka. Kasualitatez, guk eta beste bikote batek bina partida irabazi genituen, eta beste biek ez zuten partidarik irabazi. Horregatik, azken aurreko jardunaldian ez zegoen ezer jokoa; irabazi edo galdu, finalerako sailkatu baizik ez zuten.

Maria: Gainera, partida hori galdu egin genuen. Ondoren, Finala Labrit pilotalekuan jokatu genuen eta nahiko jende bildu zen.

Irati: Aurkariak gasteiztarrek ziren eta frontoiko giroa gure alde zegoela sentitu genuen.

Eta iaz?

Irati: Iaz ez genuen elkarrekin jokatu eta ni finalerdietara iritsi nintzen.

Maria: Ni finalera iritsi nintzen, baina galdu egin genuen.

Irati: Egia esan, uste genuen bikoteak ausaz osatzen zitzutela. Horregatik ez genuen elkarrekin jokatu; izena eman genuen eta kito. Aurten, ordea, jakin genuen bikotea aukeratu zitekeela, eta elkarrekin aritzea erabaki genuen.

"Iaz ez genuen elkarrekin jokatu" - Irati Garciarena

Finala irabazteko, zein izan da gako?

Irati: Defentsan sendo aritzea eta tantoak luzatzea.

Maria: Finalaren aurreko partida galdu genuen, eta 20 tantotatik 15 gure hutsegiteengatik izan ziren, dudarik gabe.

Irati: Horregatik, erabaki genuen ahalik eta hutsegite gutxien egitea finala, gehiegi arriskatu gabe.

Maria: Horrela, pilota atzelariari botatzeko genion, aurrelaria jokotik kanpo uzteko. Gero, Iratik aukera zuenean txokora edo bi paretara bidaltzen zuen pilota, eta horrela oso ongi moldatu ginen.

"Erabaki genuen ahalik eta hutsegite gutxien egitea finalean" - Irati Garciarena

Irati, nolakoa da Maria kantxan da goenean?

Irati: Mariaren indargune nagusietako bat da bi eskuekin oso ongi jokatzeko duela. Komentaristek ere askotan aipatzen dute; batzuetan zaila da antzematea zein eskuekin jo duen. Eskuinarekin gehiago aritzen da, baina ezkerrekin ere primeran moldatzen da. Gainera, errebotera pilota nahi duen moduan bidaltzen du, hutsegite gutxi egiten ditu eta oso jokalaria fidagarria da.

Maria, nolakoa da Irati kantxan da goenean?

Maria: Nik uste dut Iratik ezkerrekin sekulako pilota-kolpeak egiten dituela, batez ere txapara. Horrez gain, oso ongi entzuten du kantxan. Atzelariak zerbait esaten badiu, berehala erantzuten du eta jokora egokitzen da. Errebotean ere oso eroso aritzen da, bai ezkerrekin bai eskuinarekin. Ezkerre izateko, eskuina ere oso ona du. Eta, batez ere, oso ongi ulertzen dugu elkar kantxan gaudenean.

"Oso ongi ulertzen dugu elkar kantxan gaudenean" Maria Eguzkiza

Partida amaitu zenean, zer etorri zitzaizuen burura?

Irati: Poza.

Maria: Iratik esan zidala agian bere azken partida izan zitekeela. Horregatik, poz berezia sentitu nuen elkarrekin irabazi genuelako.

Familia eta lagunaren babesa nabaritu zenuten?

Irati: Bai, noski. Askotan, frontoia ia hutsik egoten da. Horregatik, finaleko giroa berezia izan zen.

Maria: Eskerrak eman nahi dizkiegu familiakoei. Beti egon dira gure ondoan eta beti lagundu gaituzte.

Irati: Kilometro asko egin dituzte gurekin.

Maria: Beti egon dira prest behar izan dugunerako.

Irati: Horregatik, bihotzez eskerrak eman nahi dizkiegu urte hauetan guztietan eman diguten babesagatik.

"Askotan, Frontoia ia hutsik egoten da" - Irati Garciarena

Zuen ustez, nola baloratzen duzue emakumeen papera kirol munduan?

Irati: Palaren kasuan, oraindik ez gauden nahiko gure moduan. Adibidez, eskuzko pilotan emakumeek gero eta ikusgarritasun handiagoa dute. Partidak telebistan ematen dituzte, frontoiak bete egiten dira eta emakumezko pilotariak presentzia handia lortu dute. Palan, ordea, oraindik ez dugu hori lortu. Emakumearen presentziaren aldetik, oraindik asko dago hobetzeko.

Maria: Palan ere maila handiko emakume kirolariak daude, pixkanaka aurrerapausoak eman ditugu, baina oraindik alde handia dago mutilen eta nesken artean. Gainera, emakumeen maila gero eta handiagoa da; geroz

"Emakumeen maila gero eta handiagoa da" - Maria Eguzkiza

eta hobeto jokatzeko dugu, eta hori ez da behar bezala ikusten.

Nolakoa da Lekunberri eta Larraungo neska palisten egoera?

Irati: Neska gazteak badaude, eta gero eta gehiago dira, baina herritarrak parte hartzea animatu nahi ditugu.

Maria: Ni bertako entrenatzailea naiz eta gazteen artean mugimendu polita dago. Txikienek zortzi urte dituzte, eta zaharrenak kadete mailan dabil. Jubeniletan neska bakarrik dago momentuz, baina kadete mailan talde polita osatu dute, eta gainera oso ongi jokatzeko dute. Txapelketetan parte hartzen dute eta maila handia erakusten ari dira. Indartsu datoz.

Zeintzuk dira zuen etorkizuneko helburuak?

Irati: Txapelketa solte batzuetan parte hartzen jarraituko dut, aurten egin dudan bezala.

Maria: Nire helburua orain arte bezala jarraitzea da, gustura aritzen bainaiz.

URZUBI S.A. GASSÓ
Tel. 948 504 241
urzubi@hotmail.com
LEKUNBERRI



TAXI SOROA
609 168 217
Bederatzi plaza

CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

LEKUNBERRI TABERNA

948 507 628
lekunberriataverna@gmail.com
C/ Arriaga, 19 baxo
31870 Lekunberri
@Lekunberri_Taverna

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARATZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KOMPONITZA
634 551 743
infoaralar@gmail.com

ERROTALDEA 19, LEKUNBERRI
www.maritotiki.com
679 938 016

Albaitaritza
baserriarren zerbitzura
Akaborro Ind., 31860 Iruztzun
www.albaitaritza.com · 948 500 343



486 parte hartzaile izan dira Euskal Herria Mendi Erronkan

OROKORRA

Izen-abizenak	Herria	Denbora
Mikel De Carlos Gorria	Lekunberri	07:51:41
Orgi Soroa Guelbenzu	Lekunberri	08:02:09
Ion Ferreras Layos	Lekunberri	08:02:11
Manex Saralegui Izaguirre	Betelu	08:39:03
Aimar Lansalot Eraso	Lekunberri	09:03:46
Oihan Igoa Gastesi	Lekunberri	09:10:27
Isaac Álvarez Carpintero	Lekunberri	09:35:41
Kiko Eskamendi Iriarte	Betelu	09:54:13
Aimar Estanga Arambarri	Lekunberri	10:26:31
Iosu Mariñelarena Aguirrezabala	Mugiro	11:10:45

ERRELEBOAK

Izen-abizenak	Herria	Denbora
Jaione Mikeo Lasarte / Unai Garmendia Huarte	Lekunberri / Betelu	08:15:36
Leire Olano Sotil / Markel Satrustegi Mariñelarena	Betelu / Betelu	08:48:40
Raul Amatriain Arraiza / Jaione Goikoetxea Gorostegi	Uitzi / Uitzi	08:51:31
Markel Barriola Hernandorena / Aiora Irastorza Garmendia	Leitza / Lekunberri	09:10:47
Ander Apezetxea Ansa / Maider Saralegi Sucunza	Goizueta / Lekunberri	09:18:33
Luken Casares Arretxe / Elisabet Bazdicek Zubeldia	Leitza / Lekunberri	09:35:28
Iker Chasco Azpiroz / June Aldaregia Azpiroz	Lekunberri / Lekunberri	09:55:55
Ilargi Etxarri Santxez / Hodei Etxarri Zabaleta	Arruitz / Arruitz	10:02:34
Ohiane Martinikorena Perez / Iñigo Ruiz Albiasu	Iruñea / Lekunberri	10:29:14
Mattin Goikoetxea Goiogana / Lorea Uharte Zubeldia	Lekunberri / Baraibar	11:05:33
Julen Torrado Beraza / Maddi Uharte Zubeldia	Lekunberri / Baraibar	11:05:33
Andrea Sanz Llamas / Izaskun Barba Areso	Lekunberri / Iruñea	12:22:14



Ekainaren 6an jokatu zuten Leitza Euskal Herria Mendi Erronkaren hama-bigarren edizioa. Hasiera eman aurretik, Gorka Urbizuri omenaldia eskaini zioten: «euskal kulturaren eta euskararen alde egindako lan isilari melodia jartzeagatik».

Halaber, Goiztiarrak taldeko kirolariak bi hitzez osaturiko pankarta bat zabaldu zuten irteeran: "EUTSI SENSEI". Keinu haren bidez, beren babes, maitasuna eta indarra helarazi nahi izan zizkieten mendi istripua izan zuen Alfontso Etxarri Azpirotzeri. Zoritzarrez, hiru egun geroago, ekainaren 9an, Alfontso zendu zen. Mailopetik

gure doluminik zintzoenak helarazi nahi dizkiegu haren senide, lagun eta gertukoei.

486 parte hartzailetik, 411k erronka osatu dute lasterketa

Emakumezkoetan Naroa Uria azpeitiarra izan zen garaile (08.05.17), Olatz Azazeta bigarren (08.12.00) eta Miren Bastida (08.21.46) hirugarren.

Gizonezkoetan, Borja Zubizarreta azkoitiarrak, 06.31.18 denboran iritsi zen. Horrela, Ander Iñarrak 2024an jarritako marka hobetzea lortu zuen (06.32.15). Bigarren postuan, batera, Imanol Kañamares eta Ibai Primicia helmugaratu ziren (06:39:00).

Erreleboka

Erreleboka, Paula Alberdi eta Mikel Arriola (07.29.08) izan ziren irabazleak. Jarraian, Aitor Aizkorbe eta Maialen Apezetxea (07.35.00) helmugaratu ziren, eta hirugarrenak Iker Eizagirre eta Leire Juanbeltz (07.40.39) izan ziren.

Eskualdeko lehenengo lasterkariak hiru lekunberriar izan ziren: Mikel de Carlos Gorria (07:51:41), Orgi Soroa Guelbenzu (08:02:09), eta Ion Ferreras Layos (08:02:11).

Ibarreko erreleboka, ordea, Jaione Mikeo Lasarte eta Unai Garmendia Huarte (08:15:36) izan ziren irabazleak. bigarren postua Leire Olano Sotil eta Markel Satrustegi Mariñelarenak (08:48:40) bereganatu zuten, eta hirugarren postua Raul Amatriain Arraiza eta Jaione Goikoetxea Gorostegirenztat 08:51:31) izan zen.

*Ikusi argazki galeria mailope.eus web-orrialdean: <https://labur.eus/prgspdn>



Araxesek sokatira talde mistoa sortzea lortu du

Maiatzaren 9an, Nafarroako 4x4ko sokatira txapelketan laugarren postua lortu ondoren, maiatzaren 30ean, seigarren postua lortu zuten txapelketa mistoan. Emaitzez gain, nabarmentzekoa da aspaldiko partez talde mistoa osatzea lortu izana, taldearentzat aurrerapauso garrantzitsua izan baita.



Plazaola Ziklotur 2026

Ekainaren 20an ospatu zen Plazaola Ziklotur 2026 ekimena, eta dozenaka txirindulari elkartu ziren Iruñea eta Lekunberri lotzen dituen 35 kilometroko ibilbidean. Parte-hartzaileek Plazaola Bide Berdeaz eta haren ingurune naturalaz gozatzeko aukera izan zuten, eta giro bikaina izan ze. Kirola, natura eta mugikortasun jasangarria uztartu zituen ekimena izan zela azpimarratu dute antolatzaileek.

MOTZ-MOTZEAN

LEIRE ARANBURU

Ez jetzi behiak mesedez. Mila Esker.

Gezur arrakastatsu bat gizarte modernoan, "bokazioa duenak zorte handia dauka" Zure pasioa aurkitu, maite duzun horretan jardun, eta gainera, hor-tatik bizi. Amets bat, bizitza zorienta-sun etengabe bihurtu da.

Oso polita dirudi, diskurtso edo kar-tel motibatzaile batean. Errealitatean, ordea, tranpa bikain baten aurrean egon gaitezke. Norbaitek egiten du-na benetan maite duenean, badi-rudi automatikoki denek eskubidea dutela haren denbora, energia eta pazientzia doan erabiltzeko. Gustuko baduzu, ez zara nekatuko, aspertu edo nazkatuko ezta? Gustuko baduzu, ez zaizu axola gehiago egitea. Gustuko baduzu, ez da lana, hortaz, kexatzeko eskubidea galdu duzu. Jaun-andreok, hori da iruzuraren muina.

Hipokrita da. Inork ez dio harakinari txuleta bat oparitzeko eskatzen haragia maite duelako, edo mekanikariari ko-txea musu-truk konpontzeko eskatzen motorrak gustatzen zaizkiolako. Baina norbaitek bokazioa erakusten duenean, bat-batean, haren dedikazioa baliabide publiko eta unibertsal bihurtzen da. De-nek hartu nahi dute zatitxo bat.

Eta horrela, bokazioa bertute iza-tetik negozio-eredu bihurtzen dute beste batzuek. Zenbat eta konpro-metituago egon pertsona, orduan eta gehiago estutzen eta eskatzen zaio. Zenbat eta gehiago eman, orduan eta gehiago espero da harengandik. Eta eskertza? Eskertza normalean hitze-tan etortzen da, hitz hutsetan. Ustia-keta, behia jездеaren pareko.

Zorioneko zu, bokazioa aurkitu ba-duzu. Zorionak zuri, zure boka-zioa erabiltzen saiatzen dire-nak identifikatzea lortu eta irribarre adeitsu batekin, "ez" esaten ikasi baduzu.





SOTIL GARAJEA
BETELU
948 513 007
sotilgarajea@gmail.com



ekin
rotulación
948 85 32 79

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34



MUGAK ONARTZEAREN
**PLAZERAZ
GOZATU**

**Jaietan,
planik onena
errespetua
da beti**

#ErrespetuaDaPlana



Gobierno
de Navarra

 Nafarroako
Gobernua



NAVARRA  **NAFARROA**
Una forma de funcionar | Our own way | Gauzak egiteko dugun modua

Hitz aspertuan

●● Agurtzane Altuna

Lausoa

Ez do definizio argi eta garbiet lausoa. Hitz bea bezalaxe, nahasie eta ugarie da esanahie, ezin zitteken bestela. Lausoa errex ulertzea, ikustea oztopatzen don hue da eta, aldi berean, ikusi bare atzematen dena; entenditu bare sentitzen dena. Abere bat lausotu in dela o lausoa jota daula esaten da irrazionalki zerbattek izutzen donean. Irrazionalki gure burutan, guk ez baituu sumatzen baino, beak bai. Tikitan auzoko baserritarrak bazun behi-pinta izuet. Barrotiz aldatu behar zun bakoitzean eskapoan ibiltzen zena, noraezean, deabruk hartutako arime bezalaxe. "Kontuz ibilli behi horrekin, lausotue dau ta". Eta irrazionalak beldurre beekin ume baten buru-bihotzetan.

Auzoko baserritarra bea re etxeoakin okertu zen urte batzutaa. "Ño, motillek! Hau re lausoa jota dail ba azken bolaran"; eta alerta gorri irrazional bat ume baten buru-bihotzetan. Lausoa jota dailena eskapoan ibiltzen da, izu, fiakaitz, jendeangandik ihesi. Alkoholak eta drogek arrazoia lausotzen due; kataratek, biste; irakitten ai den eltzeak sokaldeko leihoak; eta bañerako ure gora ta gora nola, malkoak begik betetzen-betetzen hasten deenean re, hala lausotzen da beitture.

"Eun on, politte, zemuz?", esan, eta irripar haundietekin agurtu niñun oain asko ez dela ezaun batek klean. Eta sentipen irrazional bat nere buru-bihotzetan. Izan ee, auzoko baserritarran behie bezalaxe, lausotue zeallen ezaun hau re aspalditxoan. Kruzatu behar zenetan baztarka; kale kanton eta balkon guztiri beire, orduntxe deskubrittu balittu bezalaxe; eo tonoi bareko dei galduri erantzuten, hitz-jario antzu batekin. Lausoa jota.

Lausoa, gandue ta galdue. Koktel hortantxe sartuko nuke egoera absurdo hue, guztiz galduta sentittu baintzen. Baño beitture lauso hue ikustean... "hemen bada okerra", nee artean. Arrazoa lausotue zeukela ohartu nitzen, beitture bezalaxe. Zeñen bihurrik deen arrazionalan eta irrazionalan arteko koapilloak, aizue. Hau marka! Beitture lausotu zaionean pasatu zaio lausoa. Irripar konjelatu batekin bueltatu nion agurre. Arrazionaletik gutxi eta irrazionaletik lepo zun hizketaldi goxo bat izan eta klean gora seittu nun pauso motxean. Eta bitartean nere bi bañeratxoak betetzen, betetzen... begi-ganduet sortu eta begi-bistekoa zen hue lausotu arte.

●● Mari Jose Martiarena (Lekunberri) eta Baltasar de Castro (Salamanca)

“Galburu okindegia bizitza oso bat izan da”



Baltasar de Castro Galburu parean.

39 urteren ondoren, Galburu okindegiak atekak itxi ditu. Denbora luze hartan, Mari Jose Martiarenak eta Baltasar de Castrok milaka ogi egin dituzte Nafarroa eta Gipuzkoako herrietako etxeetara eramateko.

Noiz eta nola hasi zen Galburu?

Baltasar: Ezkondu eta bi seme-alaba txiki genituela hasi zen Galbururen ibilbidea. Hasieran Larraungo lau herri txikitan banatzen genuen ogia. Pixkanaka-pixkanaka, ekoizpena handitu ahala, Larraun osora zabaldu genuen zerbitzua. Gero, bi langile kontratatu genituen, eta Basaburuan ere hasi ginen ogia banatzen. Egutetik egunera gehiago egiten genuen, eta ogia Gipuzkoan eta Iruñerrira ere banatzen hasi ginen. Garai hartan gure bi seme eta bi okinek gurekin egiten zuten lan.

“Ekoizpena handitu ahala, Larraun osora zabaldu genuen zerbitzua” - Baltasar de Castro

Mari Jose: Erdi Aroko azokan ere parte hartu izan genuen. Halaber, Gipuzkoan eta Iruñean egiten ziren azoketara joaten ginen, eta oso garai polita izan zen.

Baltasar: Okindegia handitzen joan zen. Hala ere, pixkanaka, senar-emazteok bakarrik geratu ginen lanean, eta azken bi edo hiru urteetan guk eraman genuen denda, lehen baino ogi gutxiago ekoitziz. Orduan erabaki genuen etapa honi amaiera ematea. Guztira, 39 urte eman ditugu hemen.

Mari Jose: Azken 39 urteetan, Galburu egunero egon da zabalik; Gabonetan bi jaieguna kenduta. Okinek gauez egiten zuten lan, eta guk egun osoa ematen genuen denda eta bezeroei arreta ematen.

Baltasar: 39 urteetan ez dugu hutsik egin. Beti egon gara hemen.

“Azken 39 urte hauetan Galburu egunero egon da zabalik” - Mari Jose Martiarena

Zer izan da Galburu?

Mari Jose: Galburu okindegia bizitza oso bat izan da. Orain, egia esan, pena handiz bizi dugu itxiera. Baltasar: Iritsi da atsedeen hartzeko garaia. Penaz, inork ez duela okindegian lan egiten jarraitu nahi. Saiatu gara: alokairuan eskaintzen, saltzen... baina ez da posible izan. Azkenean, lan honek asteburuak eta jaieguna ere eskatzen ditu, eta hor dago zailtasun handiena.

Mari Jose: Jendeak beti esan izan du ogi ona egiten genuela. Bezeroek errepikatu egiten zuten, eta ahoz aho zabaldu zen ospea. Askok Lekunberriko alde zaharra ez zuten ezagutzen, baina ogiaren bila etortzen hasi ziren, eta horrela bezero kopurua gero eta handiagoa bihurtu zen. Inguruko okindegi garrantzitsua izan da.

Baltasar: Seguruenik, egurrezko la-beak eragin handia izan du horretan.

Eta orain, zer egingo duzue?

Mari Jose: Lasai egon nahi dugu. Urte asko daramatzagu oporrik hartu gabe, eta agian bidaia edo irteeraren bat egiteko aprobetxatuko dugu. Pixkanaka-pixkanaka moldatuko gara egoera berrira.

Baltasar: Horretaz gain, gustatuko litzaiguke Galburuko makinak saltzea. Ez genituzke txatarrera bidali nahi; norbaitek erabili ahal baditu, askoz hobe. Oso egoera onean baitaude. Makina batzuk ia berriak dira. Bigarren eskuko materiala behar duen norbaitentzat aukera ona izan daiteke, berriak erosi baino kostu txikiagoarekin.



Ogiak apaletan.



“Gustatuko litzaiguke Galburuko makinak saltzea” - Baltasar de Castro

Ogia egiten jarraituko duzue?

Mari Jose: Ez. Baina magdalenak eta erroskillak, bai. Oraindik ere badago jendea eskatzen dizkiguna, eta etxean nagoen bitartean eta makinak ditugun artean, madalenak egiten segituko dut.

Zer botako duzue faltan?

Baltasar: Batik bat, jendea. Egutero etortzen ziren bezero guztiak.

Mari Jose eta Baltasar: Amaitzeko, gure bezero izan diren guztiei hurrengo mezu hau partekatu nahi diegu: Nahiz eta atekak itxi ditugun, 39 urtez gure familia eta lagunak egutero aritu gara lanean, zuen mahaietarako ogia prestatzen.

Bihotzez eskertu nahi dizuegu. Une oso ederrak bizi izan ditugu elkarrekin, eta baita zailagoak ere. Baina egutero

piztu dugu labea, zuen egutero oia prestatzeko, eta tarteka madalena edo gaila batekin gosaria goxatzeko. Faltan botako zaituztegu, baina gure atsedena hasteko garaia iritsi da. Hemendik aurrera, mostrodearen beste aldean ikusiko dugu elkar.

Eskerrik asko guztioi, bihotzez.

“Faltan botako zaituztegu, baina gure atsedena hasteko garaia iritsi da” -Mari Jose Martiarena eta Baltasar de Castro

TALLERES GOÑI
CHAPA Y PINTURA

- IBILGAILU GUZTIEN TXAPA KONPONKETA ETA MARGOKETA
- BANKADAKO LANAK
- ERROTULAZIOAK
- LLANTA BERRITZEAK
- JASO ETA ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA
- KRISTAL ALDAKETAK
- BARRUKO ETA KANPOKO GARBIKETA
- ADEITASUN AUTOA DOAN

680 859 938 · 948 500 166 · CHAPIGO@GMAIL.COM



HAN eta HEMEN

Begiratu ongi
ezkerreko paisaiari
eta beheko leihoari.
Bi tokietan ageri
diren elementuak
aurkitu behar
dituzu.
Zortzi dira guztira.

Hemezortzi!

Hona hemen Lili eta Mimi. Lili pottoloagoa da
eta Lili meheagoa, baina ez dira bien arteko
desberdintasun bakarrik. Aurki
itzazu aldeak. 18 dira guztira.



Kontsultatu soluzioak:
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

ZUHUR hitza

Alboko hizki-marrazki
alfabetoari jarraituz, eman
irudiño bakoitzari dagokion
hizkia, eta esaera zahar bat
agertuko zaizu.



HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA



AGENDA

UZTAILA

17-19- Arribeko Festak.

24-25- Astizko Festak.

31- Kultur: "Aché pa ti" taldea. 19:00 Herriko Plaza,
Lekunberri. Nafar Gobernuak antolatua.

31- **ABUZTUAK 3-**
Errazkin eta Azpirozko Festak.

ABUZTUA

1-2- Antzinako Azoka. Lekunberri.
1- 19:00 – Herri antzerkia: "LEKUnBERRI,
errautsetatik auzolanera". Alde Zaharra.
2- Azoka. Artisautza postuak, tailerrak, musika
eta animazioa, Bandera Dantza... Egitaraua
aurrerago iragarriko da.

10- Albiasun Jaieguna.

14- Antzerkia: "Txondor Plaza". Uitz. Baluarte
Fundazioan Antolatua.

15- Lezaetan Jaieguna.

21-23- Gorriti eta Oderizko Festak.

28-29-30- Atalluko Festak.

29-30- Iribasko Festak.

IRAILA

5- "Matarock" Jaialdia. Lekunberri.

11-13- Etxarriko Festak.

16- "Cosimoren katiuskak". Haurrentzako sormen
tailerra. 17:30 Mitxasene, Lekunberri.

18-20- Arruizko Festak.

19- Antzerkia: "Colapsoa", Jon Ander Aurrestirekin.
Geuretik Sortuak proiektuaren lana. 18:30 Gabari
Gune Irekia.

25-27- Uitz eta Baraibarko Festak.

29- San Migel Eguna.



MAILOPE NAHIERAN

Bazkideentzako eduki eksklusiboak eskuragarri!

Bideo-elkarriketak,
erreportajeak,
albisteak, argazkiak...

Egin zaitez zeu ere kide!

Animatu!

ERRAZA DA:

- Web-orrialdean egin:
mailope.eus/egin-kide/
- Idatzi helbide elektronikora:
info@mailope.eus
- Deitu edo idatzi:
660 476 041

**14 ZENTIMO
EGUNEAN,
MAILOPE
URTE
OSOAN!**

Mila esker Mailope komunitatea indartzeagatik! ❤️

**ARRIBE**

FESTAK 2026

Uztailak 17, ostirala

18:00 Mus txapelketa
20:13 Txupinazoa
21:30 Herri afaria eta
ondoren, bingoa
00:30 Arrixku Erromeria
03:30 DJ Elorri

Uztailak 18, larunbata

11:45 Ezkil jotzea
12:00 Puskabiltza herri osoan
zehar
18:00 Ume jolasak eta
puzgarriak
19:00 Bailarako dantzari
txikien emanaldia
23:30 Elektrokutatu
elektrotxaranga
02:00 DJ

Uztailak 19, igandea

09:00 Goizeko soinua
12:30 Meza
Ondoren XXIV patata tortilla
lehiaketa
16:30 Umeen pilota
partiduak
19:00 Herri kirolak Xabat
Illarregi eta Joanes
Illarregi bertsolariekin
Trikipoteoa

**ASTITZ****Uztailak 25, larunbata**

12:00 Erronda etxez etxe
akordeoilariarekin
17:00 Helduentzako jolasak eta
musika arratsaldean
18:30 Mus txapelketa
19:00 Duo ILYA musika
taldearen kontzertua
22:00 Herri afaria
00:30 DJ Hiru Hirukiak

Uztailak 26, igandea

12:00 Larraungo Pilota
Elkarteko neska-mutilen
pilota partiduak
13:30 Herriko adineko
herritarrei omenaldia
18:00 Iruña Dantza Taldearen
dantza erakustaldia
18:30 Mus txapelketaren finala

**ERRAZKIN****Uztailak 31, ostirala**

16:00 Txupinazoa Auztegi
16:01 Puskabiltza Mattie eta
Idoia trikitilariarekin
00:30/
02:30 Eztanda erromeria
02:30 DJ Txekor

Abuztuak 1, larunbata

11:30 Ume jolasak
12:30 Bailarako dantzari
txikiak ta txalaparta
14:30 Paellada
autogestionatua
Ondoren, Bingo musikatua
17:00 Mojitada
20:00/
21:30 Gabezin
21:30 Hanburesada
23:00/
01:30 Gabezin
01:30 Aulkien jolasa
02:00 Los Tritus

Abuztuak 2, igandea

11:00 Meza nagusia
11:30 Umeen eta gazteen
pilota partiduak
12:30 Pilota: Sotil-Nazabal VS
Garaño-Astiz
18:00 Aizkora apustua
19:30 Pintxoak eta barrikotea
Iruza taldearekin
alaitua

Abuztuak 3, astelehena

13:30 Bermuta
14:30 Zikiro jatea
17:30 Mus eta Txintxon
txapelketak

**ODERITZ****Abuztuak 21, ostirala**

18:00 Suziria
18:12 Porrotxen entzierroa
18:30 Oderitzeko batukada
19:00 Puzgarriak
19:30 DJ Oixani
22:00 Afari autogestionatua
23:00/
00:00 Bingo musikatua
00:00 DJ Oixani
02:00 Aulkien jolasa

Abuztuak 22, larunbata

10:00 Dianak
12:00 Erronda musikaz girotua
16:30 Puzgarriak
17:30 Herri kirolak
19:30 Txokolatada
20:00 Erromeria Joxe
Mendizabalekin
20:30 Hanburesak salgai
Lizarpe elkartearen
23:00 Erromeria Joxe
Mendizabalekin

Abuztuak 23, igandea

10:00 Dianak
11:00 Haurrentzako jolasak
12:30 Bertso-bermuta
14:00 Bazkaria
Ondoren, Mus Txapelketa arina
16:30 Puzgarriak
18:00 Xaibor disko festa
21:00 Azken traka

*Ikusi gainontzeko festetako egitarauak
mailope.eus web-orrialdean:
<https://mailope.eus/agenda/>